

Barakaldo, desertua

JONE ALDAMIZ-ETXEBARRIA

Nire kide eta lagun Karlosen eskariari erantzunez, orri zuriak eragiten didan izuari gaina hartu eta “barne turismo gordinean” murgildurik nagoen honetan, Kantabriako lainoek nire baitan pizten dituzten bazter miresgarri eta ez hain miresgarriei begira nagoela, atzera begira jarri naiz azken 32 urteotako bizipenak gogoratzeko.

Udalera sartu nintzenean, itzultzaile lanpostuan, ez neukan esertzeko lekurik ez bulegorik: non kokatu ez zekitenez, “*generador de ideas*” izendatu zuten Ceferino del Olmoren bulegora eraman ninduten. Irratian jarzen zuen musika klasikoa lagun, kulturari —eta beste edozeri— buruz zituen ideiez inguraturik ekin nion itzultzeari.

Eskuzko idazmakina, eta kalko paperak; geroxeago, idazmakina elektrikoa eta ordenagailuak. Ikaragarria izan da 30 urteotan egin den jauzia, bai baliabideetan bai itzulgaietan.

Ceferino berehala baztertu zuten: ez zituzten gustuko haren ideiak.

Ni, berriz, “*la de euskera*” bihurtu nintzen.

Demokrazia jairo berriaren suak eraman zuen Udala itzultzaile lanpostua sortzera; ez, ordea, euskara sustatzera. Eta ilintiek, berriz, Barakaldo k-z idaztera, ordenantza xixtrin bat onartzera eta kale-izendegia egokituzera (onartu gabe geratu ziren Arrontegi eta Zuhatsu, esate baterako, eta horrela jarraitzen dugu oraindik). Itzaliz joan ziren haiek guztiak eta, igurikimen guztiak zapuztuta, etorri zen iluntasuna.

Tarteka, lorpen txiki batzuk, oasiak desertuan:

Beste udal askotan bezala, Administrazioako C maila atxiki zioten itzultzaile-irakasle lanpostuari, eta urteetan jardun nuen borrokan B maila onar ziezadaten, EIZIEko aholkulari Elena Lakaren laguntzaz. Azkenean, lortu genuen Pertsonaleko Zuzendari Juan Castro egoeraz jabetu, eta Udaleko lanpostuen zerrendan B mailako lanpostua sartzea, baina urtero atzeratzen

zuten zerrenda onartzeko erabakia, eta, zer diren gauzak, azkenean aurrera ateratzea lortu genuen, PPko Juan Nieto de Cossio berriz ere erabakia bertan behera utzi nahi zuten sozialistei oldartu zitzaielako.

Euskararen dinamizazioa, euskara bera ere, arrotza izan da Udalean, kontu testimoniala. Euskarari dagokionez, laguntzaile eta bideratzaile baino gehiago, oztopo jartzaile izan da Udala. Hala ere, 2011n sortu zuten Euskara Zerbitzua (orain, “*los de euskera*” gara).

EAEko laugarren udalerrri garrantzitsue- na izanik ere Barakaldo, zoritxarrez, azkenak izan dira Euskara Zerbitzua sortzen. Hori, ordea, ez da kasualitatea. Barakaldo hiri handia da, aniztasun handikoa (100.000 biztanle, gutxi gorabehera) eta biztanleen %18k jotzen du bere burua euskaldun- tzat. Hori asko den arren, galdu egiten da horrenbeste erdaldunen artean. Udalean, berriz, politikarientzat euskara ez da existi- tu, eta kontra jarri ez diren arren, alde ere ez. Eta langileek hori sentitu eta barneratu dute. Ez bakarrik hori: euskara gomendaga- rria ez dela ere susmatu dute.

Egoera horretan guztian, zer esan gure arloaz? Ez da egon, eta ez dago, inolako plangintzarik, ezta irizpiderik ere jakiteko zer komeni den itzultzea; eta, horrela, da- torrena itzultzen dugu, nahiz eta askotan zaharkituriko albisteak izan edo inork se- kula irakurriko ez dituen gauzak, euskara presentego bihurtuko luketen itzulgaien kaltetan.

Hori guztia goxatzeko, ongi itzuli nahian gabiltzala, testua idatzi duenari galdera bat baino gehiago eginez gero, “*No te preocu-*

pes; total, nadie va a leerlo” esan izan digute behin baino gehiagotan.

Uko egin nion 4. hizkuntza-eskakizuna ateratzeko azterketa egiteari. Oposizioa egi- na genuelako aitzakiaz oldartu ginen hain- bat itzultzaile. Larrutik ordaindu behar izan nuen gero erabaki hura, ditxosozko B maila lortzeko ezinbestekoa baitzen HE. Makina bat gauza egin behar izan nuen 4.a gaindi- tzeko, eta lehenengo saiakeran atzera bota ninduten, gainera: ezagun nuen, nonbait, banekiela euskaraz, baina edukia... (euskal- duntzeko plangintzari buruz galdetu zidate- la uste dut). Bigarren saiakeran, terminolo- giaz galdetu zidaten: eskerrak!

Aspaldi utzi nion, bestalde, literatura itzultzaile izateko ametsari, ez bainuen hori taxuz egiteko adorerik.

Itzultzaile izan naiz ogibidez, eta hala izaten jarraitzen dut, oraingoz, bederen. Lan zoragarria iruditzen zait; sari bat, egia esanda. Baina nik ogibide besterik ez dut izan, tamalez; eman baino gehiago, jaso egin baitut.

Soziologiako ikasketak utzi, eta Euskal Filologia ikasteari ekin nion. Ikasketak nola edo hala bukatu nituen, baina, Deustuan ikasi nuenez, lizentziatura-azterketa zintzi- lik utzi nuen. Beraz, handik urte mordox- ka batera, beste bi urtez jardun behar izan nuen Vitoria-Gasteizko EHUn karrera bu- katzeko.

Zenbait itzultzailearen egoera tamalga- rriak asaldaturik sartu nintzen EIZIEko Zuzendaritza Batzordera. Lehenengo batza- rrean, “tipula” gora eta “tipula” behera jar- dun zuten batzordekideek, eta ni ez nintzen ausartu ere egin zertaz ari ziren galdetzera.

Orduan hasia zen ernamuintzen ItzulBaita egitasmoa, Tipula, s.l. enpresarekin.

Irene, Arantzazu eta Milaren abaro goxoaz, Zuzendaritza Batzordeko giro atseginarean besoetan kulunkatu nintzen hainbat urtez. Oso esperientzia aberasgarria izan da Zuzendaritzan aritzea.

Aukera ederra izan dut hau bidean eza-gutu eta laguntza eman didaten guztiei esker-rak emateko. Bereziki, jakina, oposizioaren berri eman zidan eta bizitzan bidaide izan dudana B. Montoriori eta hura prestatzen lagundu zidan B. Bilbaori.

Resumen

En este artículo de corte autobiográfico, Jose Aldamiz-Etxebarria hace un repaso de su andadura de 32 años en el Ayuntamiento de Barakaldo, en labores relacionadas con el euskara y la traducción. La dinamización del euskara, la lengua en sí, ha sido un elemento extraño en el mencionado municipio, algo meramente testimonial. Más que colaborador y facilitador, el mencionado ayuntamiento parece haber sido más un elemento obstaculizador, y aunque un 18% de la población de considere vascohablante, para la representación política el euskera no parece existir en aquel desierto.

Résumé

Dans cet article, relevant de l'autobiographie, Jose Aldamiz-Etxebarria nous rappelle son parcours de 32 ans à la mairie de Barakaldo (Bizkaia) où elle a réalisé des tâches liées à l'euskara et à la traduction. La dynamisation de cette langue et la langue elle-même ont été, pour ainsi dire, absentes dans ladite municipalité, la présence de l'euskara n'ayant été que purement symbolique. Et qui plus est, cette mairie semble avoir constitué dans ce domaine un obstacle plutôt qu'un élément de facilitation et de coopération, quand bien même 18% de la population se considère bascophone. En effet, pour les représentants politiques de Barakaldo, l'euskara ne semble pas exister, et il est condamné à survivre dans un « désert », nom donné à la gare ferroviaire de cette localité.

Abstract

In this autobiographical article, Jose Aldamiz-Etxebarria reviews his 32 years on the city council of Barakaldo, in tasks related to the Basque language and translation. The revitalization of Basque and the language itself were rarely found in this city, and were more symbolic than anything else. Instead of serving as collaborator and facilitator, the city council seems to have acted as an obstructive element, and even though 18% of the population considers itself to be Basque speaking, for local politicians, Basque seems not to exist in that desert.

